IRUNGO MENDIZALEAKEN BARNE ARAUDIA

1.- Elkartearen lehentasun nagusia. Elkarteko aretoak erabiltzeko lehentasuna izango dute kultur ekintzek, hitzaldiek, proiekzioek eta horrelakoek, betiere aurretik iragarrita eta gure **JARDUERA NAGUSIARI, MENDIARI** dagozkionak.

2.- Bazkideak, 18 urtetik gorakoak edo adingabetuak, beti bazkide baten ardurapean, eskubidea dauka instalazioak erabiltzeko edo eta lokalean egoteko, ***baita gonbidatu ditzake bazkide ez diren pertsonak, hamar kopurutik pasa gabe,*** betiere **ARAUDI** honetan adierazitako arauak betez.

3.- Bazkide ez den oro bazkide batek lagunduta etorri ahal izango da lokalera. Bazkideen edozein batzar egiten ari den bitartean, ezin izango du lokalean egon, eta ateratzeko esango zaio.
Elkarte honen bazkide izandakoa ezin izango da lokalean sartu **BORONDATEZKO BAJA EZ BAZEN IZAN**.

4.- Bazkide orok zaindu egin behar du bere kargura dauden adingabeek behar bezalako jokabidea izan dezaten bai elkartean lokal barruan bai kanpoan, eta **EZ DIETE ENBARAZURIK SORTUKO EZ BERTAN DAUDENEI ETA BIZILAGUNEI**, eta uneoro haien jokabidearen erantzule izango da.
Era berean, zaindu egin beharko du berak gonbidatutakoek bera dagoen mahaian osa dezaten taldea.

5.- Bazkideak erantzukizun solidarioa izango du kalteen, txikizioen eta abarren aurrean… eta baita gonbidatu dituenaren jokabidearen aurrean ere.
Arazoren bat sortzen bada, Zuzendaritza-Batzordeari jakinarazi beharko dio.
Bazkide batek irregulartasunen bat ikusten badu eta salatzen ez badu, egileak berak duen erru bera izango du.

6.- Sukaldeak bazkideek edo horiek baimendutako pertsonek **BAKARRIK** erabiliko dituzte, eta baimendutakoak ere haien erantzukizunpean egongo dira. Erabiltzen ari direnak bakarrik egongo dira sukaldean. **BEREZIKI DEBEKATUTA DAGO ADINGABEAK BI SUKALDEETAN EGOTEA.**
Bi sukaldeak erabili ahal izango dira era berean bi jangeletarako.
Behin bi sukaldeen erabilera bukatzerakoan ke - erauzgailua itzali beharko da (dagokion arauak begiratu).
Kopuru txikiak erretzeko, “txiki” sukaldeko labea erabiltzea gomendatzen da.
“Txiki” jangelako atea IDEKITA egongo da **BETI** egunez eta sukalde txikiko atea **BETI ITXITA** egongo da gauez (22:00etatik ixteko ordura arte), eta beti zainduko da **BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEA**.
Sukalde txikian DEBEKATUTA dago kantatzea eta edonolako zarata egitea gauez, eta beti zainduko da **BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEA**

7.- Mahai guztiek beren zenbakia izango dute, eta badago **LIBURU** bat bazkideen eskura, erreserbak egiteko. **Erreserba legezkoa edo balioa izateko, hogeitahamar eguneko aurrerapenakin egina izan behar du.**
Zuzendaritza Batzordeak jakin araziko du, hortarako dagoen liburuan, zeintzu egun ez diren erabilgarri, egun horietan erreserbarik ez egiteko.

8.- Bazkide bakoitzak **MAHAIA EDO MAHAIAK ERRESERBATZEKO MAHAIAREN EDUKIERARA DOITU BEHARKO DU LAGUN KOPURUA** (zortzi edo hamar).
Jangela txikian mahai bat bakarrik erreserbatu ahal izango da bazkide bakoitzeko (gehienez 12 lagun), Zuzendaritza Batzordearen berariazko baimena edukiz gero salbu.
Horretarako, bere izena, data, lagun-kopurua eta nahi den mahaiaren edo mahaien zenbakia idatzi beharko ditu. Hamaiketakoa, bazkaria edo afaria den ere adierazi beharko da.
Mahai-erreserbarik ez duten bazkideek errespetatu egin beharko dituzte erreserbatuta daudenak, eta libre daudenak erabiliko dituzte.

9.- **HAURREN MERIENDAK** astelehenetik ostilara, 17:00etatik 19:30etara, egingo dira, eta **BETI** jangela handian; inoiz ez txikian.
Bazkide arduraduna lokalean egon beharko du, meriendak dirauen artean.
Kontu handiakin beteko du **GASTUEN ORRIA**, batez ere **MERIENDAK, DESCORCHE, eta ELKARTE GASTOAK, PERTSONA BAKOITZEKO**, atal berexietan.

10.- Mahai guztiak hartuta baldin badaude, baina toki librea dutela, beste bazkide batzuek osatu ahal izango dituzte.
Jaunartzeetarako, urteurrenetarako,… aurretik baimena eskatuko zaio Zuzendaritza Batzordeari.

11.- Jangela txikia asteburuetan, ostiral gaua barne; jai-egunetan eta jai-bezperetan bakarrik erabili ahal izango da, Zuzendaritza Batzordearen berariaz baimenduta salbu.
Jangela txikiko atea **BETI ITXITA** egongo da gauez (22:00etatik ixteko ordura arte).
Jangela txikian **DEBEKATUTA** dago kantatzea eta edonolako zarata egitea gauez, eta beti zainduko da **BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEA.**

12.- Elkartera sartzeko hall edo aretoa TB erabiltzeko eta/edo adingabeen aisiarako erreserbatuko da. Bazkide orok zaindu behar du bere kargura dauden adingabeek behar bezalako jokabidea izan dezaten areto horretan eta kanpoko patioan, eta uneoro begiratuko du **BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEA.**

13.- Bazkideak **INOIZ EZ** du utzi behar TB agintea adingabeen eskura, eta TBren soinuaren **BOLUMENA** kontrolatu beharko du; batez ere, gauez, eta beti zainduko du **BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEA.**

14.- Mahai-erreserba eskatuta eguna baino 48 ordu lehenago baliogabetu ahal izango da, eta hori egin ezean eta erabiltzen ez bada, **2 €** ordaindu beharko da izena emandako lagun bakoitzeko.

15.- Debekatuta dago lokalean erretzea.

16.- Erreklamazioak saihesteko, bazkideak ezin du baxera garbitu, horretarako kontratatutakoa arduratzen baita zeregin horretaz.

17.- Sukaldeko tresna eta baxera erabili oro hondakinak garbituta jaso beharko da, eta hartarako dauden lekuetan jarri beharko dira, behar bezala pilatuta eta **HARRASKAK LIBRE** utziz.
Hondakinak gaika botako dira dagokien edukiontzietan.

18.- Erabilitako botila eta botilatxoak erabat hustuko dira, eta hartarako jarritako lekuetan utzi beharko dira. **INOIZ EZ SUKALDEKO BARRAREN GAINEAN,** horrek beti geratu behar baitu garbi, erabili ondoren.

19.- Prestatu beharreko janaria hozkailuko konpartimendu hutsean jarri beharko da. Kontsumi nahi den soberakoa, gero ondo egokituta egon beharko du, ohar baten bidez, norena den eta zein egunetan jarri zen adieraziz. Bi egunetara handik kendu ez bada, zaborretara botako da.
Bazkide orok berea ez den janari eta edari guztia errespetatu beharko du.

20.- Ez da su gainean jarriko sukaldeko inolako tresneriarik, janaria prestatzeko erabiltzen ari ez denean. Plantxak erabili ondoren, espatula pasako da, gero erabilgarri gera daitezen.
Sukalde txikian bereziki **DEBEKATUTA** dago plantxaren azaleraren gainean gauza zorrotzekin eta metalikoekin moztea, zulatzea eta kolpatzea.

21.- Ezin izango da lokalean prestatu, ez ontziratu kanpoan jateko, eta inolako tresnarik ere ezin izango da atera elkartetik, Zuzendari Batzordeak salbuespena eginez baimenduta izan ezik.

22.- Mahai-zapi eta oihalak daukaten helburuetarako bakarrik erabiliko dira. Mahai-zapia erabili beharko da mahaietan.

23.- Gastuen oharra behar bezala egiteko, kontsumitzen diren edarien ontziak mahaiburuetan jarriko dira, behar bezala kontrolatzeko eta gero handik kentzeko. **INOIZ EZ SUKALDEKO BARRAN.**

24.- Mahaiak huts-hutsik, garbi eta bere jatorriko lekuan utzi beharko dira, hamaiketakoa, bazkaria edo afaria bukatu ondoren.

25.- Bazkarietarako erreserbatutako mahaiak erabilgarri egon beharko dute 12:00etatik aurrera, eta afarietarako erreserbatutakoak, 20:00etatik aurrera.

26.- Bere tokitik hartu den tresna edo produktu oro bere tokian jarri beharko da, erabili ondoren.

27.- Kortxoa kendutako edo hasitako botila oro ordaindu egin beharko da. Elkartean erosten ez diren edarien kasuan, dagokion kortxoa kentzea ordaindu beharko da.

28.- Ezin izango da **EZER JARRI HOZTEN** ez izotzen kaxan, ez izozkien kameran.

29.- Sua saihesteko, inoiz ez hustu hautsontziak zaborretara; hartarako jarritako lekuan hustu behar dira beti.

30.- Bazkide ororen betebeharra da gastu-oharrean beharrezko diren datu guztiak jartzea, nahiz eta kontsumizio bakar bat izan.
Oharrean identifikatutako bazkidea izango da hartan gertatutako edozein arazoren erantzule. Bazkidea bakarrik dago baimenduta edariak eta bestelako gaiak mahaira eta barrara ateratzera kontsumiziorako.

31.- Dena delakoagatik gastu guztiak ordaintzeko adina diru eduki ezean, oharrean, guztizko zenbatekoaren ondoan, **ZOR DUT** idatzi beharko da, eta gutun-azal batean sartuko da. Kopuru hori 48 ordu pasa aurretik ordaindu beharko da.

32.- Ixteko orduan –**LANEGUNETAN, 00:30; JAI-EGUNETAN ETA BEZPERETAN, 01:30**– lokalean dauden bazkideek ezin izango dute kantatu, atea itxiko dute eta gizalegez jokatu beharko dute, uneoro zaindu **BEREN ZARATEKIN BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEKO.** Era berean, sarrerako ateak itxita egon beharko du.

33.- Lokaletik irteten den azkeneko bazkideak itzali beharko ditu argi guztiak eta kafe-makina. Ziurta ezazu **ke - erauzgailua** itzalita dagola. (ikus horretarako arauak), eta ate guztiak giltzaz ondo itxita utzi.
ERA BEREAN, ZABORRA ATERA BEHARKO DU.

34.- Uneoro eta are gehiago gaueko orduetan, elkartera sartzerakoan eta irteterakoan, gizalege osoz jokatu beharko da beti, eta uneoro zaindu beharko da **BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEA.**

35.- Elkartera sartzeko patioa ez da lekua adingabeek jolas dezaten, ezta elkarrizketetarako lekua ere gaueko orduetan. Bazkidea arduratuko da **BIZILAGUNEI ENBARAZU EZ EGITEA** zaintzeaz.

36.- Lokalera sartzeko txartela pertsonalki emango zaie hala eskatzen duten bazkideei, eta **PERTSONALA ETA BESTERENEZINA** da, eta arau hori errespetatu ezean, kendu ahal izango da.
Lapurtu edo galduz gero, berehala jakinarazi beharko zaio Zuzendari Batzordeari, baliogabetu dezan.

37.- **LIBURUTEGIA** eta **MATERIALA ALOKATZEKO** zerbitzua bazkideen eskura egongo dira astearte eta ostegunetan, lanegunetan, 18:30etik 20:30etara.

Oharra: Barne-araudi honetan aurreikusi gabekoa edo interpretazio argia ez duena Zuzendaritza Batzordeak argituko du.
Argitzea urgentea gertatzen bada, batzorde horretako kideren batek argituko du, eta Batzordeari jakinaraziko dio hori. Nahitaez bete beharko da emandako argibide hori.

Erreklamazioren bat, iradokizunen bat, salaketaren bat edo horrelakoren bat egiteko komunikazio oro idatziz egin beharko da, behar bezala identifikatuta, eta Idazkaritzako postontzian utzi beharko da.
Behar bezala identifikatuta ez dagoen idazkia kontuan hartuko da daukan garrantziaren eta oihartzunaren arabera, baina, logikoa denez, ez du erantzunik izango.

IRUN, 2013ko Ekainaren 1a

Zuzendaritza Batzordea